



BEHAZUN-MASKURIA KIRURGIA HANDI ANBULATORIOAN (Esku-hartzearen osteko zainketak eta gomendioak)

1. Alta eman ondorengo **lehen 24 orduetan**, tratamenduarekin amore ematen ez duten min handia, goragalea edo gorakoa baduzu, zorabio-sentsazioa edo odoljario-zeinuren bat baduzu, jar zaitez harremanetan OSEARANekin (945203050) telefono-zenbakian, edo joan zaitez AUO-TXAGORRITXUko larrialdi-zerbitzura.
2. Hartu adierazitako medikazioa eta gantzik gabeko dieta biguna, eta otorduak maiz eta kantitate txikikoak eginez. Ez edan alkoholik. Baliteke hasieran meteorismoa (gasak) eta digestio astunak sumatzea, eta hori normala izan ohi da.
3. Ikterizia (larruzalaren kolore horixka), sukarra, zauritik odoljario handia eta iraunkorra, zauria 5-10 minutuz konprimitu ondoren arintzen ez dena, edo adierazitako medikazioarekin lasaitzen ez den min handia izanez gero, joan AUO Txagorritxuko larrialdietara.
4. Datozen egunetan hartu tenperatura arratsaldean. 38°C edo gehiagoko tenperatura baduzu, kontsultatu zure familia-medikuari.
5. Ohiko bizimodura itzultzea norberaren bilakaeraren arabera izango da. Kontsultatu zure familia-medikuarekin.
6. Lasaigarrien bidez arintzen ez den min handia edo iraunkorra agertzen bada, kontsultatu familiako medikuari.
7. Zauriaren eremua dutxatu edo garbitu daiteke, ebakuntzaren bigarren egunetik aurrera. Lehenago apositua kenduko da. Dutexatu eta zauria ondo lehortu ostean, apositu berri bat erabiliz estal dezakezu edo airean utzi (nahiago duzun bezala).
8. Ez kezkatu zauriaren inguruan ubeldura baten moduko kolore biolazeo arin bat agertzen bada (pixkanaka desagertu egingo da eta kolorea aldatuko zaio).
9. Ez egin ahaleginik eta ez hartu pisurik ebakuntzaren ondorengo lehen egunetan.

